



UNITATEA	<b>GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNA</b>
XEDEA	Hasiera ematea Mundu Bat Elkarteari dirulaguntza zuzena emateko espedientea
ORDEZKARIA	
TITULARRA	MUNDUBAT

### ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Kristina Pelaez Errazquin, Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi delegatua, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023ko ekainaren 30eko 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

### IKUSIRIK

LEHENENA.- Israel eta Hamasen arteko akordioa sinatu bada ere, Palestinar herriaren egoerak jasanezina izaten jarraitzen duela, akordioak ez baitu genozidioaren amaiera ekarri.

Hori dela eta, Palestinak, inoiz baino gehiago, mundu osoaren babesa jaso behar du eta ezinbestekoa da eragile politiko, sozial eta sindikalen konpromisoa.

Zentzu honetan, Urriaren 15ean Genozidioaren aurka egindako greba dela eta, udal langileen ordezkariak sindikalaren eta gobernuaren konpromisoa izan da greba egun horrengatik soldadetako erabiliko ez den diru kopuruaren baliokidea (3.397,24 €)Gazako zerrendan laguntza humanitarioa ematen duen elkarte bati bideratzea.

BIGARRENA.- Palestinak bizi duen egoerak jasanezina ikusirik, Gazako zerrendan laguntza humanitarioa eta herriaren berreraikuntzan lan egiten duen irabazi asmorik gabeko erakunde baten bidez Tolosako udala eta langileen elkartasun eta konpromisoa gauzatzeko beharra.

HIRUGARRENA.- Goseteak, desplazamenduek, lurraldearen okupazioak, , lurraldearen suntsiketa gaixotasunek, oinarritzko lehengaien eskasiak eta laguntza humanitarioaren beharra indarrean jarraitzen dutela, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa zalantza ezina dela.

LAUGARRENA.- MUNDU BAT Palestinan 1998tik egiten du lan, palestinarren eskubideak defendatzeko eta eskualdean bake justua lortzeko apustu sendoa eginez , eta bere lan lerroak hauek direlarik:

Ekintza humanitarioa



Giza eskubideak

Generoa eta feminismoa

Elikadura subiranotasuna

## KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

HIRUGARRENA.- Mundu bat elkarteak Abenduaren 19an Tolosako udal erregistroan, 2025-00000016580 zenbakia duen zuzeneko dirulaguntza eskaera egin duela <<LARRIALDI-EGOERETAN PROIEKTU ETA EKINTZA HUMANITARIO PUNTUALAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK. Gernika Palestina Herri Ekimenaren inguruan ekarpenak jasotzeko Gazako oinarrizko beharrei begira>>

LAUGARRENA.- Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailak, 2025eko abenduaren 23an egin du oharra adieraziz:

<<Dirulaguntza honen xedeak erabat betetzen du premiazko laguntza humanitarioetan lankidetzaz laguntza lerro estrategikoarekin. Ez dago eragozpenik.>>

BOSGARRENA.- 2025eko abenduaren 23an egin du oharra idazkaritzak, adieraziz: <<Aldekoa. Jasota ez dagoen guztirako, kontuan hartuko dira: 40/2015 eta 7/1985 legeak>>.

SEIGARRENA.- 2025eko abenduaren 23an egin da Fiskalizazio txostena aldeko emaitzarekin, eta ondokoa zehaztu da, besteak beste:

<<Bigarrena.- Ebazpen proposameneko laugarren puntuan adierazten da faktura guztiak onuradunaren izenean egon beharko direla eta bertan bere IFZ agertu beharko dela.

Dirulaguntzaren onuraduna Mundu Bat Fundazioa den aldetik faktura guztiak egon beharko dira bere G95204160 IFZ-arekin. Zalantzarik sortu ez dadin, fakturek IFZ hori (hau da, G95204160) jaso beharko dutela adieraztea komeniko litzateke.>>

Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

**EBAZTEN DU**



**LEHENA.-** Onartzea Mundu Bat Elkarteari 3.397,24 euroko dirulaguntza zuzena ematea Larrialdia Gazan programarako.

Programa honen helburua Gazako familiei oinarrizko elikadura bermatzea da, eta egitasmo hau UPWC eta UAWC erakundeekin lankidetzan egingo du elkarteak.

**BIGARRENA.-** Dirulaguntza 0500.491.10.231.00 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura finantzatuko da.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Hain zuzen era, honen inguruan adierazi nahi da elkarteak eskaerarekin batera aurkeztutako aurrekontuan zehazten duela egitasmoaren kostu osoa 10.000€koa izango dela; eta, aldi berean, adierazi duela partikularren dohaintza bidez 10.000€ jaso dituela elkarteak egitasmo horri aurre egiteko. Horiek horrela, ulertu da Tolosako Udalak eskaintako 3.397,24 euroak era kontatu egin direla ekarpenak adierazterakoan. Horrela ez balitz, eta Tolosako Udalaren ekarpena jasotzerako egitasmoaren kostua osatuta balego, elkarteak dirua itzuli beharko luke, Tolosako Udalak dirulaguntza hori onartzeko oinarrizko baldintza baita onartutako kopuruaren adinako defizita izatea egitasmoaren finantzaketan.

**HIRUGARRENA.-** Dirulaguntzaren zenbateko osoa ordainketa aurreratuta bidez egingo da, ebazpen hau onartu eta jakinarazitakoan.

**LAUGARRENA.-** Dirulaguntza justifikatzeko ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du onuradunak diruz lagundutako ekimena exekutatu eta beharrezko dokumentazioa osatu bezain laister, beranduenera ere 2026ko abenduaren 31a baino lehen. Hauxe da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.
- BAL dokumentua (Udalaren Egoitza Elektronikoan eskuragarri). Diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren gastuen eta diru-sarreraren zerrenda jasoko du, eta proposatutako ereduaren arabera jaso beharko da Entitate



onuraduneko presidenteak edo idazkariak sinatu beharko du.

- GAS dokumentua (Udalaren Egoitza Elektronikoa eskuragarri). Gastuen zerrenda sailkatua izango du, eta bertan identifikatuta jarri beharko dira hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen eta ordainketa datak. Jatorrizko formatuan aurkeztu behar da dokumentua (xls.), sinadurarik gabe.

Finantzaketa-iturri bat baino gehiago erabili bada, Tolosako Udalak, gastu horri dagokionez, zer ehuneko finantzatu duen adieraziko da.

- Gastuak justifikatzen duten fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan frogabaliobaliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak. (ezinbestean, dirulaguntzaren onuraduna den elkartearen izenean egongo dena)

Gastu horien ordainketen egiaztagiriak.

Justifikazio gisa aurkeztuko diren agirien inguruko oharra:

1. Faktura guztiak onuradunaren izenean egon beharko dira eta bertan bere IFZ agertu beharko da.
2. Eskudirutan ordaintzekotan, lege ezarritako mugapena aintzat hartu beharko da webgune honetan kontsulta daiteke: [www.agenciatributaria.es](http://www.agenciatributaria.es).
3. Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira jaso-izanaren agiriak. Edonola ere, jasotze-agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, kasu horretan dagokion faktura egin eta eman beharko baitu ezinbestean.

Jasotze agiriak datu hauek bildu behar ditu:

- Jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.
- Eragiketa edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta prezioa, guztira.
- PFEZaren atxikipena (dagokion Zerga agentzian egindako atxikipena sartu izanaren agiria erantsi behar da).
- Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

**BOSGARRENA.-** Jakinarazpena egitea interesatuari eta Kontuhartzaitza eta Diruzaintza sailei jakinaraztea.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:



TOLOSAKO  
UDALA

«2025DO200057»

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoarean erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertze-errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

**Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari akzidentala naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Kristina Pelaez Errazquin

Francisco Javier Araniguría Rodrigo



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2025DO200057-Ebazpena/Resolución ()